

**HERRIAK ETA ESTATUAK
EUROPA ERAIKITZEN**
**Oinarriko Kristau Elkarte
Konferentzia Europearra**

Joan den uztailaren lehengo legunetan, Vitoria-Gasteizen, Oinarriko Kristau Elkarte Europearren Konferentzia-Kongresua egin zen. Herri ttiki eta minorizatuen ikuspegitik batez ere, Nazioak eta Estatuak Europaren eraikuntzan duten erantzunkizunari buruz egin zen gogoeta eta eztabaida.

Konferentziaren muina, Agustin Gil jaunak berak, aurkezpen ekitaldian esan zuen moduan, «Oinarriko Kristau Elkartek, Parisen 1991. urteko uda partean egindako IV. Kongresuan kokatu behar da». Kongresu hartan, 700 partaide baino gehiago 92. urteko Europaren justizia sozialaz mintzo izan ziren, hau, Oinarriko Kristau Elkarteentzako erronka baita.

Handik ateratako proposamenak esparru ekonomikoak, sozialak eta politikoak inguratzen zituzten, kristauok, konpromisozko erantzuna eskaini behar bait diegu arazo horiei mundua zuzenagoa izan dadin, justizia hedatu dadin. Aipatu kongresu horretan, Hungaria, Portugal, Gales eta Euskal Herriko kidez osotutako lantalde batek, besteak beste, honako proposamen hau egin zuen Herri minorizatuen gainean:

“Europako batasunaren aurrean eta gure Herrien askatasun bideak ireikitzen doazen honetan, oraingo Estatuetan oinarritutako Europa hori salatu egiten dugu, Europa osatzen duten Herri minorizatuak bazter batera utzi eta ez baleude moduan joakatu bait du... Oinarriko Kristau Elkarteari Herrien Eskubide Kolektiboari buruzko Konferentzia antolatzeke proposamena luzatzen diogu».

Euskal Herriko Elkarte Herritarrak arduratu ziren proposamen hura aurrera eramateaz Oinarriko Kristau Elkarte talde europarrak baiezkoa emanda. «Herria 2000 Eliza»-k bere laguntza eta lan-kidetzak eskaini zuen Konferentzia hori eratzerakoan, horrelako gai eta lanetan esperientzia handia bait dauka aldizkari horrek.

Puri Txasko-k azaldu zuen bezala, hausnarketa horren premia eta orijinaltasuna -Gasteizko Alkatea den Jose Angel Cueda-k eta Kultura Diputatua den Pedro Ramos-ek ere Konferentziaren irekieran azpimarratu zuten legez- hauxe izan zen: Herri minorizatuaren egoeratik abiatuz, fedearen argitik eginkizun sortzailea aurkitzea.

«Kristauok, Elizen ekumenismoa abiapuntu dugularik, irmoki uste dugu lagunkidetasuna dugula egiatan, bakean, justizia eta maitasunean oinarria duen proiektua gauzatzera garamatzen bidea. Hori dugu, egin-eginean ere, abiapuntutzat Herri bakoitzak dituen egoera zehatzak hartuz, Jainkoaren Erreinua hemen, orain eta beti eraikitzen bultzatzen gaituen sinestadunon fedearen indar sortzaile birplanteatu eta argi eta bide gisa eskaintzera garamatzen batasunaren oinarria. Beraz, eginkizun sortzaile bat dugularik, biltzarre honetatik elkarren arteko partaidetza-lanaren emaitza eder gisa, guztion bizileku dugun lur planetari diogun maitasun eta begirunearen altzoan Herri bakoitzaren izate kontzientzia bultzatuko duten konpromezu zehatzak hartzeko erantzunkizuna dugu».

Helburu horrekin, gai-zerrenda, jatorriz eta planteamendu aldetik ikuspegi desberdina zuten hizlarietara banatu zitzaizkien (Estatu espainolekoak eta beste toki batzuetakoak). Horrela, Jokin Apalategi (Euskaraz), Aureli Argemi, Giulio Girardi, Juan Antonio Estrada, Joxe Chao Rego, Guilermo Mugica, Paulo Agirrebaltzategi (euskaraz) eta talde batzuen ordezkariak: Elkarri, Hegoa, Askapena, Liga Internacional por los Derechos y Liberación de los Pueblos, Comités internacionalistas, SOS Balcanes eta SOS Racismo izan ziren hizlariak. Pluraltasunean funtsatutako hausnarketa egin nahi izan zen eta Oinarriko Kristau Elkarteendako bideak bilatu, giza eskubideen alde, maila indibidualean eta kolektiboan, duen konpromisoa betetzeko nahita-nahiezko pausoak urratuz.

Konferentzi-Kongresuan 120 partaide inguru batu ziren. Andaluzia, Catalunya, Galiza, Flandria, Portugal, Sud-Tirol, Occitania, Walonia eta Euskal Herrikoak ziren Gasteizeko Kultura Etxean bildu eta lan sakon eta interesgarri bat burutu zutenak. Esan beharra dago talde europearreko kideen falta somatu zela. Italia-ko Oinarriko Kristau Elkartekoak izan ziren bakarrik telegrama bidali eta Gasteizen egindako lanarekin bat egin zutenak. Askotan ulertzezak sortzen dituen gai horren inguruan beti izan dugu elkarrizketa-bidea bilatzeko nahia eta desioa, eta horregatik nahi genituen gure artean Estatuko beste Herri eta lurralde batzuetako Oinarriko Kristau Elkarteak. Inor ez azaltzeak harritu egin gintuen.

Azpimarratzekoa da ere, hitzaldi eta eskuharmen guztiak hiru hizkuntzetan emanak izan zirela: euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez. Lan izugarri eta nahiko eskertuezinezko horretan aritu ziren itzultzaileak: Martin Orbe, Patxi Uribarren eta Julio Araluze.

Edozein modutan, Konferentziaren muina eta haria laburbitzen duen orri honekin, han emandako ponentziak, jarritako hausnarketa bideak eta ekitaldiaren frutu moduan eskainitako ekintzen berri emango duen liburua argitaratuko dela iragarri nahi dugu. Gerora sor daitezkeen hausnarketa eta elkarrizketarako baliogarri izango delakoan.

Konferentziaren amaiera ondoren datozen proposamenak onartu ziren.

OINARRIKO KRISTAU ELKARTE EUROPEARREN HAUSNARKETA ETA EKINTZARAKO PROPOSAMENAK

Europako hainbat Hrritako Oinarriko Kristau Elkarteetako kideok, Vitoria-Gasteizen (Euskal Herria), 1993ko Uztailaren 2an, 3an eta 4an batuta, Herrien egoera aztertu eta horren gainean hausnarketa egin dute sinismen askatzailearen ikuspegitik. Oinarriko Kristau Elkarteen praxia aurrera eramateko bidetzat honako puntu hauek proposatzen dituzte:

1) Europaren batasuna eraikitzen ari den honetan, kristau moduan, Europako herrialdeen askatasun bidea badagokigunez, Herriok kausitzen ikasi behar dugu une honetako zeinu legez.

2) Estatu-nazioek egiten duten manipulazioa salatu egiten dugu, Herria hitza eta Estatu hitza bat bailiren hartzen bait dituzte. Estaturik ez duen herri bat ez da inoiz «minoría» bat izango Estatu barruan, Estatuak minorizaturiko komunitatea delako gehiengoaren aurrean. Herri hitzari buruz ari direnean, Estatuak ezarritako gutxiengo-gehiengo kontzeptua ezin da funtsatu kopuru sailetan. Horren aurrean, Europako batasunaren prozesuari buruz daukagun zalantza agertarazi nahi dugu, izan ere, oraingo Estatuetan oinarritzen ari baita Europa bera osatzen duten Herriak bazter batera utziz.

3) Oinarriko Kristau Elkarte moduan erabiliko dugun praxian, 1990. urtean Bartzelonako CONSEUren Bigarren Hitzaldian onartutako Herrien Eskubide Kolektiboen Nazioarteko Adierazpenaren inguruan hausnarketa egin eta geureganatzeko proposamena egiten dugu. Hor aitortzen denez, edozein herri «geografi aldetik lurralde jakin baten edo beste esparru batzutan garatu dituen berezko kultura eta historia duen gizataldea»k osatutakoa, Eskubide Kolektibo horien sortzezko subjektu bait da.

4) Edozein Herrik duen oinarrizko eskubideetariko bat autodeterminazioa dela aldarrikatzen dugu. Horrek hauxe dakar:

-Bere lurraldea izateko eskubidea.

-Bere ingurugiroa, baliabide ekonomikoak, komunikabideak kontrolatzeko eskubidea.

- Bere hizkuntza eta kulturaren alde egiteko eta garatzeko eskubidea.

Gaur egungo Estatuak eusten dituen nazioarteko ordenak, ekonomikoak zein politikoak, biolentzia sortzen du. Biolentziaren kontrako aukera bakarra herrien autodeterminazio eskubidea aitortu, eta herririk pobreenekin eta zapalduenekin bereziki, elkartasuna adierazi.

5) Hizkuntza da Herri baten nortasunaren zeinua eta kulturaren euskarria. Egintza kolektiboa da, beraz, nazioarte mailako edozien lege edo araudik, edozein herrik bere hizkuntza erabiltzeko duen eskubide kolektiboa bermatu behar du.

6) Taldearen minorizazioa, dominazio eta pobrezi modua da, eta horrela izanik, elkartasunaren eta Herrien askatasunaren aldeko Jainkoaren dei egiten da. Gure ustez, Eliza, Jainkoaren Herria Herri askatueta, konprometitu egin behar da Herrien Europa egiterakoan. Oinarriko Kristau Elkarte europearrok, Europa berri honetan, askatasunezko mezu horren eramaile izan behar dugu.

7) Balkanetako Herrien arteko gerra latzaren aurrean, Bosnia-Herzegovina-n batez ere, giza-eskubide oinarrizkoenak hautsi izana eta jendea akabatu izana salatu egiten dugu. Gerra krudel horren amaiera esijitzen dugu eta Herri horietariko bakoitzak, aske bizi eta garatzeko eskubidea duela aitortzen.

8) Xenofobiak eta arrazismoak Herrien duintasuna eta justizia apurtzen ditu. Oinarriko Kristau Elkarte moduan, lana eta ogia gurekin batera eduki eta jateko eskubidea dutenen alde konprometitu behar gara, laguntza eta elkartasuna adieraziz.

9) Munduan zehar dauden Herri marginatu eta zapalduekin elkartasuna adieraztea da nazioarte mailako pakearen ardatza. Oinarriko Kristau Elkarteok, gure lana sinismen askatzailearen aldetik dugun praxia horretan erabili behar dugu. Probreenganaiko maitasuna eta justiziaren konpromisu horrekin bakarrik izango dira gure Elizak Ebangelioaren aitorle.

Azkenengo proposamen atal horren hariari jarraituz, Giulio Girardi-k nazioarteko elkartasuna zehazteko modua aurkeztu zuen, herri minorizatuen eta «Mugimendu Indigena», beltz eta herritarraren borrokatik sortutako ardurak eta esfortzuak bat egitearen alde agertuz. Herrien arteko prozesu bateratzailea, mundu mailakoa, egiteko premia azpimarratu egin zen V. Mendeurrena zela eta.

27 herrialde eta 900 erakunderen artean sortutako komunikazio-sareari laguntzeko premia isladatu zen, mundu mailan, Herrien askatasunarekin, Herrien kultura eta eskubideen aldeko kontzientzia historikoa sortu nahian. Hortik sortu zen herrien, Indigenen eta beltzen batasunerako Fundazioaren eskaria.

Proposamen horrek bilatu du bere bidea Rigoberta Menchú-k egindako proposamen zehatz batetan, «Vicente Menchú Fundazioa»n, mundu mailan, mugimendu indigenoa, beltza eta Herriena bildu nahian. «Lelio Basso» nazioarteko Fundazioak ere bat egingo du aurreraxeago aipaturiko ekimen horrekin.

Girardi-k honako proposamen hau egin zuen: hegoamerikarekin bat egin duten mugimendu europear guztiek bat egin dezatela politika aldetik eta diru aldetik. Horrela, koordinazio horri esker, Hegoa eta Iparraren arteko zubia eraikiko litzateke kontzientziazio-gune moduan, mundu indigenarekin, beltzekin eta Herrien artean komunikazioa elkar trukatzeko, mundu mailako izakera emanaz eta nazioarte mailako indarra lurrean dauden herri zapaldu guztien eskubideen alde jarriz.

BATZORDE ANTOLATZAILEA